

Bixente Serrano Izko

## Estetika, argibide

E

zin ukatu. Datu teknikoek, alde batekoek zein bertzeoek eztabaidetan, zorabiatzen naute. Haien bila noanean, baliteke aurretiko joera izatea alde baterantz edo besterantz makurtzeko, zeharkako hainbat arrazoiengatik, eta gehienetan arrazoi teknikoek baino gehiago nire ustezko sen onak eramanik. Baina datu bila horretan, irekia izan nahi eta bi aldeetako datu zorabigarriak deskorapilatzen saiatzen naiz, konparatzen, batzuen eta bertzeen hiperboleak haien neurrira ekartzen... azkenik zerbait gehiago ikasi dudalako inpresioa neureganatzeraino, baina horrexegatik hain zuzen bertze sentrazio hau nitaz jabetzeraino: gero eta hutsune handiagoak ditut kontu horien inguruko ezagutzan. Erraten den bezala: zenbat eta gehiago ikasi, hainbat eta sakonago nire ezjakinaren kontzientzia.

Halere, eztabaidaren plakatoko datu-dantzaren erdian, urrats berezi halakoak ikusten dituzu, erritmoa aldatzen dutenak; oin, beso, lepo, sabel, aldaka eta gerrien itzulnguru halakoak, dantzaren ikusgarritasuna biribiltzen dutenak. Dantzaren hari soilen atzetik dantzari antagonistei sen estetiko desberdinak antzematen dizkiezu. Eta estetika horiek dira mugitzen zaituztenak, datu-urrats soilak baino gehiago, dantzari bat lehenestera eta bertzea baztertzer.

Adibide bikain bat: hiru urte duela, 2008ko otsailean, parada izan genuen Eusko Jaurlaritzako Herrilan-sailburuari irakurtzeko AHT inguruko eztabaidan, trenaren defentsan noski. Elkarrizketa bat, eta kazetariak, batere neutrala ez izanik, sailburuari, beronek nahi baino gehiago hitz eginarazi zion. Bada, datuen dantza korapilatsuen erdian, honakoa bota zuen: “Legebiltzarrean azaroan izan zen azken eztabaida: %85ek bozkatu zuten azpiegi-



JOSU SANTESTEBAN

turen alde”. Eta “Legebiltzarrean herritar guztien ordezkariak daude”. Beraz...

Sailburuaren sabel itzulnguru bat dirudi argudioak, datuen dantza soilari estetika-ukitu bat emate aldera. Estetika eztabaidagarria, gainera, zeren lepoa emanen bainuke legebiltzarkideen %85 hura ni bezainbertze zorabiatzen dutela datu teknikoek, nik neuk baino gehiago ez dakiela AHT horren beharraz. Nahiz eta gerta izan zitekeen, ni EAEko hautesle izan banintz, %85 horren zati bat neuk hautatua izana, horrek ez du erran nahi ene botoa orri zuri azpiko sinadura denik, hautetsiek gero euren nahierara idazteko ebazpenak auzi guztietan. Hautesle on boto itxurako sinaduraren gainean badaude testu batzuk, bertan idatzi gabe baina non, bertzeak bertze, auzi batzuetarako herri-kontsultak eta erreferendumak eska-

tzen diren, demokrazia parte-hartzaileen ikur gisa.

Eta hain zuzen, horren galde egin zion kazetariak. Hona erantzuna, antologia-koa, datu tekniko guztiek baino anitz gehiago bultza ninduen AHT arbuiztzer: “Gure sistema instituzionala onartzen badugu, noski. Bestela, beste era bateko eztabaida batean sartzen ari gara. Kasu horretan, galdeketa erabiltzen ariko litzateke, ez horrenbeste trenaren inguruan erabakitze, baikik eta erakundeci eraso egiteko”. Horixe datuen dantzaren erdian sabel, aldaka eta ipurmasailen itzulnguruak, demokraziari buruzko estetika edertzailatzat!

Demokrazia parte-hartzaileen ikur diren herri-kontsultak demokraziaren suntsitzaile bihurtu zituen sailburuak, bere sabeleko AHT plana bertan behera uztearen alde agertzen bazen herria gehiengoz.

Zorabiatzen naute, bai, datu teknikoek askotan. Haien atzetik sarri dagoen estetikak itzultzen nau ene senera, ordea. ■

Horixe datuen dantzaren erdian sabel,  
aldaka eta ipurmasailen itzulnguruak,  
demokraziari buruzko estetika edertzailatzat!  
Demokrazia parte-hartzailearen ikur diren  
herri-kontsultak demokraziaren suntsitzaile  
bihurtu zituen sailburuak, bere sabeleko  
AHT plana bertan behera uztearen alde  
agertzen bazen herria gehiengoz